

EH Bildu talde politikoa Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAREN LANGILEEN ETA ERABILTZAILEEN KEZKAK DIRELA-ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko maiatzaren 11n Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Gaur egungo gizarte eta osasun egoera honek erakusten du zenbateko beharra dagoen mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko eta etxez etxeko laguntza zerbitzuen, eta nolako garrantzia duen laguntzaileen lan-sektoreak, bai etxeetakoena, bai egoitzetakoena. Askotan, ordea, baldintza eskasetan lan egin behar izaten dute langile horiek.

Donostiako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko laguntzaileek, esate baterako, behin baino gehiagotan adierazi diote udal honi (baita Lan Ikuskaritzan ere, martxoaren 31n) EUDELEK adostutako protokoloak kezka ematen diela, maskarak arnas arazoak dituzten pertsonen laguntzeko besterik ez direla erabili behar dio-eta protokolo horrek.

Apirilaren 14an jakin genuen arnas patologiarik ez zuen erabiltzaile bati kasu egin zion laguntzaileetako bat COVID 19az kutsatu dela (positibo eman du testean), nahiz eta askotan eskatu zuen maskara erabiltzea.

Horrek berretsi egiten du auxiliarrek bazutela beldur izateko arrazoia, eta kasu egin behar zaiola maskara zerbitzu eta etxe guztietan eramateko exigentziari; arnas patologiak dituzten pertsonen laguntzeko bakarrik ez, protokoloak hala jartzen duen arren. Era berean, prebentzio material hori behar adina eman behar da, egun batzuetan erabilera bakarreko materiala ez erabiltzeko, erabilera horrek ez du-eta benetako babesik ematen.

Apirilaren 16an, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Haurren Arretarako Sailak agindu zuen maskara eraman zezaten adin txikikoen etxeetako hezitzaile guztiek. Ez du zentzurik zerbitzu batzuetan etxeko profesionalen material hori erabiltzeko esatea eta etxez etxeko laguntza zerbitzuan ez, nahiz eta zerbitzu hori jasotzen duten pertsonak izan birusaren aurrean ahulenak (hau da, adineko pertsonak).

Aste hauetan izandako bozeramaile batzordeetan Eneko Goia alkateak etengabe bi gauza errepikatu ditu: alde batetik, auxiliarrei segurtasun materiala banatzeko ardura zerbitzua kudeatzen duen enpresarena dela (Aztertzen) eta, bestetik, segurtasun materialaren hornidura bermatuta zegoela. Bi kasuetan erantzukizun falta ikusten dugu alkatearen aldetik: nahiz eta

EH Bildu talde politikoa Grupo político EH Bildu

lJentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

kudeatzaile beste enpresa bat izan, zerbitzu publikoa delako (Udalak eskaini behar duenaren delegazioa), batetik, eta auxiliarrekin hitz eginda argi dagoelako, bestetik, ez dutela segurtasun materialik izan.

Gizarte-ekintzako delegatuak batzordean adierazi digunaren arabera, material falta egon denean Udala gainditu duen horniketa arazo batengatik izan da eta, behin eta berriro errepikatu digu auxiliarrak babestuta egon direla. Bi hilabete hauetan auxiliar askok eta zerbitzuaren erabiltzaileek izandako sentsazioa, ordea, segurtasun faltarena eta beldurrarena izan da, eta horren seinale da 450 zerbitzu eten egin direla.

Gauzak horrela, ez dugu ulertzen zergatik Udal Gobernuak ez duen langileekin esertzeko intentziorik eta zergatik dioen haien bizipenak faltsuak direla, zuzenean zerbitzua eskaintzen dutenen bertsioa entzun eta ezagutu gabe. Izan ere, krisi egoeretan bereziki garrantzitsua da langileek eskatu duten gardentasuna eta elkarrizketa zuzena.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari interlokuzio kanal bat ezartzea Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko langileekin, osasun alarma egoera hasi zenetik izan dituzten kezka eta beharrak partekatzeko.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Eudelek etxez etxeko laguntza zerbitzuko auxiliarrei egiten dizkien frogen emaitza orokorren berri ematea zerbitzuaren langileei, erabiltzaileei eta Udalbatza osatzen dugun taldeei, denok izan dezagun egoeraren argazki erreal bat.

Donostian, 2020ko maiatzaren 19an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia